

ERREPORTAJEA TRINITATEAK ARGAZKITAN • GEHIGARRI BEREZIA DEKORAZIOA
KIROLA NAHASTE BORRASTE PROBA HERRIKOIA JOKATUKO DA GAUR, OSTIRALA, 19:00ETAN

BARREN

ASTEKARIA



ELGOIBARKO ASTEKARIA • 2001eko ekainaren 15a/VIII. urtea/367. zkia

HAURREN DANBORRADA EGURALDI TXARRAGATIK ATZERATU BAZEN ERE

Azkenean bai!

Dekorazio
gehigarria
GEHIGARRI BEREZIA

Erretza garrantzitsua da etxe bakoitzeko kuxina. Baita baita etxearen egitura bereziki garrantzitsua. Baita baita etxearen egitura bereziki garrantzitsua. Baita baita etxearen egitura bereziki garrantzitsua.

MEDIKUAK

José Ignacio Recalde Yurrita

Mediku oftalmologoa Oftalmologia orokorra
Zuzendari medikua Zirugia refraktiboa
 Begi-lausoen zirugia

Ifiaki Rodríguez Aguirreche

Mediku oftalmologoa Oftalmologia orokorra
 Begi-lausoen zirugia
 Glaukoma
 Erretina medikua

Sandra de Fernando

Mediku oftalmologoa Oftalmologia pediatrikoa
 Okuloplastika

Rafael Recalde Yurrita

Medikua Enpresetako oftalmologia
Lan istripuen prebentzioa

Aizpea Ugalde Izaguirre

Optometrista Kontaktologia



Clinica Oftalmologica **RECALDE** Oftalmologi Klinika



Miopia, astigmatismoa eta hipermetropia sendatzeko ebakuntzak azken aurrerapenak erabilia (topografia korneala).

Excimer laserrekin egindako zirugia Lasik sistemaren bitartez.

Kristalino gardena.

Begi barruko lente fakiko epikapsularrak.

Iris euskarriko begi barruko lente fakikoak.

Zirugia mota hau Recalde doktoreak, ICQO, Bilboko Laser eta Miopia Zentruan egiten du. Jarraipena eta ebakuntza ondoko zainketak Eibarren egiten da.

Clinica Oftalmologica RECALDE

Plaza Barria, 2 - 2. - Tel.: 943 20 18 44
20600 EIBAR (Gipuzkoa)

E-maila: clinicarecalde@sareneLes



Lotsarik gabe!

Udako Euskara ikastaroak 2001

EGA AZTERKETA PRESTATZEKO IKASTARO BEREZIA

- Ekainaren 25etik uztailaren 20ra.
- 4, 5 ordu goizean.
- Prezioa: 16.000 pta.
- Ikasie eta langabetuentzako prezioa: 8.000 pta.

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK

- Ekainaren 25etik uztailaren 20ra.
- 5 ordu goizean.
- Prezioa: 16.000 pta.
- Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 8.000 pta.

BARNETEGIA ZERAINEN

- Gipuzkoako Udal Euskaltegiok antolatuta.
- Urtallaren 1etik 15era, astebukaerak barne.
 - Prezioa: 39.000 pta.

MATRIKULALDIA: Ekainaren 4tik 22ra

UDAI
EUSK-ALTEGIAK



Aretrabaleta • Arrasate Azpeitia Beasain
Bergara • Deba • Eibar • Elgoibar • Erreartera
Eskoriatza Hernani • Hondarribia • Irun
Lasarte-Oria • Legazpi Mutriku Pasaia
Tolosa • Urretxu • Zarautz • Zumarraga

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

ELGOIBAR Nafarroa Enp. 2 . Tel. 943 742 731 .

CigOi.OUSkai@Udal.gipuzkO3.net

MUIRIKU Txurruka Enp. 1 . Tel. 943 603 094 . E-maila: euskmutriku@udal.gipuzkoa.net

DEBA Ifar-kate, 12 • Tel. 943 192 236 . E-maila: euskaltegi@deba.net



Abiadura Handiko asTakeria

Bihar Donostian AHTaren aurkako manifestaldia egongo da. Euskal Herrian hainbat egunkari eta telebista existitzen badira ere, irakurleentzat prentsa askatasunik existitzen ez denaren seinale, proiektu erraldoi honi buruzko desinformazioa erabatekoa da. Hor doaz beraz AHTari buruzko datu batzuk:

- Trenbide berria eraikitzeko nekazari askori lur mordo bat kenduko diote. Izan ere, trenbidearen zabalera handiaz gain, ibilbide guztian alboetan 100 metroko distantziara hezia jarriko dute, ondorioz:

- Baserrietako nekazal lurra eta etxeo abere zein animalia basatientzako bizilekua bi zatitan banatuta geldituko da. (Azpiegituretan apenas aurreikusten da pasabiderik, honek izango duen kaltea izugarria dela aurreikusi arren).

- Energia kantitate ikaragarria kontsumitzen du.

Beraz, nuklearra den energia frantziarra inportatu beharko litzateke, edo bestela, Bizkaian eraiki nahi dituzten zentral elektriko erraldoiak martxan jarri (herri guztia aurka duen Zornotzako zentral termikoa, adibidez).

- Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Irwlea Iotuko lituzke (Iparraldean badago) eta hiriburuen arteko lotura ohiko trenak egiten duten abiadura berdinean egingo luke (abiadura handia lortzeko batetik eta gelditzeko bestetik 200km behar baititu: Baionatik Hendaiara dabilena kasu).

- Treneko txartelaren prezioa hegazkinaren antzerakoa da (garestiagoa ez bada).

- Honek guztiak gure poltsikotik aterako dituzten milaka milioi pezeta balio ditu. Gutxi batzuen erabilerarako eraiki nahi dute, kalitatezko garraio sare publiko merke baten aldeko benetako apustua egin ordez. Noren interesen arabera erabakitzen ditu Eusko Jaurlaritzak horrelako proiektuak?

Lorea Perez de Albeniz



Gure osasuna

Duela gutxi, tabakorik gabeko nazioarteko eguna ospatu da. Egun horretan erretzaileei zigarrorik ez erretzera animatzen dira. Gobernuak zigarroen prezioak igotzeko asmoa du eta zigarro paketeen "hilt egiten du" jarriko du epe motzean, orain arte erabili dituen lemak ezabatuz. Zigarroak jende askori kalte egiten dio, bakoitzak erretzen duenaren arabera, noski. Baina nola uler daiteke gobernuak zigarro pakete bakoitzaren prezioaren zati handi bat beraientzat zerga moduan hartzea eta aldi berean "hilt egiten du" jartzea paketearen kanpoaldean? Kalte egiten duen gauza bat legearen barruan saltzea nola uler daiteke?. Beraz, egokiena erretzeari lagatzea izango litzateke, baina zer gertatuko litzateke bihartik aurrera denek erosteari lagako bagenio? Bururatzen zaidan lehen erantzuna osasuna hobetuko genukeela da. Baina nondik aterako dute tabakoarekin lortzen duten miliokada guztia? Telefono deiak, gasolina, elektrizitatea, ura eta hainbeste gauzen prezioak igota? Agian ez litzateke aldaketa txarra, gure onerako bada.

Jokin Martinez

Cio?



O

O

N



Erreportmea 6

InOtZ MOtZ

gehigarria

kiRdAk

aGenda



Urruzunoren begi ezkutua

Bazen behin, herriska batian,
itsu bat.
(-ra) begira, eguna ematen zuena,
eta gorri gorri, esan ziona...
gorrari,
eska ziezaion,
mutuari,
konta zezan ipuin bat, herriko plazan.
Ordutik, herriko arkitekto eskolan,
plazak deseraikitzeko proiektuak
ahalbideratzen dabez.

Amaia Urzelal

PREKARIETATEAREN ASTEA

Aste honetan prekarietatearen astea ospatzen denez, honen esanahia jakin behar genuke. Hau da, hila justu pasatzearekin bat datorrela. Beraz, pobrezia-rekin mugan dagoela esan genezake. Adibidez: Gazte batek irabazten duenarekin bere kabuz ezin bizi izatea; pertsona batek bere lan kontratuak noiz arte iraungo duen ez jakitea (% 70 kontratu tenporalak dira); gazteek eta emakumeek beteranoek edo gizonek baino gutxiago kobratzea; emakume askok enpresariak kontratatzen ez dituztelako etxean geratu behar izatea; segurtasunik gabeko baldintzetan lan egitea (aurten,, jada, 60 langile istripuz hil dira); familia berean bikoteak lan eginez gero, etxeko lanak emakumeak betetzea...

Honek dakartzan ondorioak ezin ditugu ahaztu. Ondorio praktikoak eta psikologikoak. Azken honen barruan autoestima falta eta depresioak daude. Hala eta guztiz ere, ondorio sinpleagoak denok ezagutzen ditugu: erosketetarako poltsa bete ahal ez izatea, pisu bat erostea pentsaezina izatea, kontratuaren iraupena ez jakiteak ematen duen intseguritatea, lanpostuan baldintza hobekak aitarrikatzerakoan "kanporatzearen mamuak" beti inguruan izatea, gu langabezia gaudela beste askok ordu estrak egitea, solidaritatearen ideia gero eta urrunago egotea...

Azken finean, inork lanik topatuko ez balu, bizi baldintza duina eraman ahal izateko soldata soziala aldarrikatzen dugu.

Bat egin ezazu gurekin prekarietatearen aurkako nazioarteko aste honetan. Elkar zaitetz gurekin ostiralean, arratsaldeko 19:00etan, Elgoibarko Plaza Handian.

Elgoibarko Gutun Sozialaren Aldeko Plataforma
M.O.
NAN 16264506

ASTEKARIA BaRRen

Natarroa enparantza, 2
20870 ELGOIGAN
tr 943 74 41 12
Publizitatea:
o 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barrentitopagunea.com
Helbide informatikoa:
eNnv.topagunea.comibarren
AncrrAnamuLen
Elgoibarko Izarra

LAGISMAYLEA Elgoibarko Udala zuzen/111A110. Eli Nzpuru Kezarelex trati Agirreazakategi, Asier Orhea PueuarennAndolz Agdregornezkorta MAKErarbuLEA Bea Ansola AounasTsukzioA Amala Rodrigez GEREIRZA Jon Peli Uriguen.

KOLADORATZAILAK Amaia Lariz, Unai Argarate, Eguzliffe Aranberri, Lorea Perez de Alheniz, Jokin Martinez, Aitor Zabaleta, Leke Urkidi, Olga Unzilla, Montse Arregi, Juanho Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gumstega, Jon Eugi, Ainhoa Andonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno LT..

AZALEKO ESALDIA Golzon Garate INPASMATEGIA
Geno Koop. E. THADA 4.001:1ale LEGE GORDAILUA
88-1.038/92 ISSN 11311855

BEGOIBARKO IZARRA
.111.111Z

Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
eta Foru Aidundiak diruz lagundutako aldizkaria.



sitz kutxa

1DANOBAT

GOITI
GRUPO DAPIORIU

tib ISTARTA


611DIEIX

- Ama bat Elgoibarko **Liburutegiko ordutegia** dela eta kexatzera etorri da. "Inguruko herrietako liburutegiak ez dituzte **eguerditan isten eta** asteburuetan ere irekita egoten dira. Orain azterketa garaia dela-eta zenbait gazte Eibarko liburutegira joan behar izaten da ikastera. **Ez al dute pentsatu Elgoibarko liburutegia asteburuetan ere zahalik edukitzea?**"

Liburutegira deitu dugu eta erantzun hau jaso dugu bertan: "Oraingoz **ez daukagu ordutegia aldatzeko asmorik**. Zortzi ordu eta erdi liburutegia irekita edukitzea nahikoa iruditzen baitzaigu. Liburutegia kontsultarako eta liburuak hartzeko lekua da, ez ikasteko zentro bat, eta gure belburuak betetzen ditugula uste dugu".



- **Usuako parkean**, justu barandila amaitzen den lekuan, Kutxaren atzeko aldean, alegia, **zikinkeria** dagoela-eta kexatzera etorri zaigu emakume bat BARREnera: "Herrian horrelako txokoak ere zaindu egin behar dira. Zikinkeria pilatzen joaten da eta estetikoki efektu txarra egiteaz aparte, **higienikoki ere kaltegarria da herriarentzat**".



- **Herri Eskolako** guraso talde batek **irakasleak** txalotu nahi ditu urte guztian egin duten lanarengatik: "Urte amaierako jaialdian egin zuten lana txalotu nahi dugu bereziki. Ikuskizun aparta eskaini ziguten haurrek eta hori guztia antolatzeko lan asko egin behar da".

- Herriko emakume bat honako kezkarekin azaldu da BARREnera: "Trinidad jaixak oso politxak izan dia, bateko korridia, besteko tanborradia... baina **harrixuta geratu naiz ez ditxuelako txapliguak bota**. Gaileguen jaixetan hainbeste txupinazo botatzen ditxue, eta herriko beste jaixetan ere, eta Trinidadietan zergatxik ez?".



TRINITATE JAIAK 2001 ARGAZKITA

EKAINAK 8, ostirala



EKAINAK 9, larunbata



"Manola" eta guzti, dosfilearen ondoren, kapak kendu eta piskanaka harrotzen hasi ziren 3 toreatzaileak. Aurrean zuten "rniura"-ri guztia atera zioten.



Tanbor zaratekin amaitu zen egu Batzuentzat behintzat...



Karroza, soldadu, kantinera eta kozinero.



EKAINAK

ARGAZKITAN TRINITATE JAIAK 2001



Txaranga doinuz, euripean, sartu ziren hiru toreroak Plaza Txikiko hondarrean.



EKAINAK 10₁ igandea



Herriko artistak 111. Artisau Azokako protagonistak.

11, astelehena



Guztiak atera ziren astelehenean, behin igandeko euri jasa atertu eta gero.



"Deha Beheko industrialdea" elkartea sortu da hailarako industria indarlzeko

Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Mutrikuko industrialdeek egin dute bat

Debabarreneko hainbat **i**ndustrialdek elkartzeko erabakia hartu dute. Beraien helburu nagusiak baliabideak bateratzea eta eskualdean industriarako erabilgarri diren lurak eskuratzea eta antolatzea dira. Izan ere, industria ekimenak eta inbertsioak bultzatu nahi dituzte Debabarrenean. Horretarako, urbanizazio planak prestatuko dituzte eta baita pabilioi industrialak eraiki ere.



Elkartearen egoitza nagusia. Elgoibarren egongo da, lbaitarte industriddean

9 partaide

Elkarte berriak "Deba Beheko Industrialdea" izena edukiko du, eta egoitza nagusia Elgoibarko Ibaitearte poligonoan egongo da. Partaideei dagokienez, "Sprilur"-eko bost kide, Gipuzkoako Foru Aldundiko bi eta elkartuko diren industrialdeen herrietako (Eibar, Elgoibar, Mendaro eta Mutriku) bi ordezkari izango ditu taldeak. Elgoibarko Alkateak hartuko du hasieran Elkarteko lehendakari postua eta Mendaroko Alkatea izango da aholkularia. Bi urteren buruan Eibarko eta Mutrikuko alkateei emango diete erreleboa.

Debabarrena Eusko Jaurlaritzak antolatutako "Euskaraz bizi" kanpalnaren barruan sartu da

Eusko Jaurlaritzak "Euskaraz Bizi" kanpaina antolatu du, jendeari aisialdia giro euskaldunean bizitzeko aukera emateko. Programarako landa turismoa aprobetxatzeaz gain, euskaraz asko hitz egiten den 12 eskualde aukeratu dituzte, pakete turistikoak osatuz. Plangintza hobeto ezagutu nahi dutenentzat kanpainari buruzko txostena eta pakete turistikoaren katalogoa daude edozeinen eskura Udaleko Euskara Zerbitzuan (943 74 43 66).

Urruzuno Literatur Taldeak Hamaika Litera aldizkariaren beste ale bat kaleratu du

"Poesia kalera" egitasmoa ere jarri dute martxan

Joan den astean kaleratu zuen "Hamaika Litera" literatur aldizkariaren ale berri bat Urruzuno Taldeak. Laugarren zenbakia da oraingoa, eta iazko urrian Ekekei antzerki taldeak antolatutako antzerki amateurren topaketetan eskainitako poesia emanaldia bildu dute aldizkari orrietan. Hamaika kontu literatan saioak hainbat taldekideren poesiez gain, beste poeta batzuen lanak ere biltzen ditu. Maite Rementeriak diseinatzaileak eman dio itxura eta 500 ale kaleratu dituzte guztira. Harpidedunek

jadanik jaso dute etxeko buzoietan, eta gainontzekoek herriko hainbat tabernatan zein ikastetxeetan eskuratu dezakezue.

Poesia kalera

Urruzuno Literatur Taldeak "Poesia kalera" egitasmoa jarri du martxan poesia jendearengana gerturatzeko asmoz. Poeta euskaldunen zein atzerritarren poemekin 22 kartel dotore kaleratu dituzte. Herriko tabernetan eta kalean ikus ditzakegu kartel

hauek. Urruzuno Literatur Taldekoak jendearen harrera nolakoa den jakiteko zai daude, eta baliteke aurrerago kartel gehiago ere ateratzea.





Elgoibarko 15 odol emailek zilarrezko domina jaso zuten AranUazun

Debabarreneko odol emaileak Arantzazun elkartu ziren, odol emaileak saritzeko. Gutxienez 25 aldiz odola eman dutenek zilarrezko domina jaso zuten. Eugenio Mediavilla, Maria Isabel Artetxe, Jose Luis Azkonizaga, Jose Manuel Carballo, Migel Angel Zengotita, Celina Fuentes, Juan Maria Landa, Jose Maria Murcia, Isabel Muruamendiaraz, Maria Pilar Osoro, Maria Lourdes Ramirez, Jose Maria Trueba, Migel Urbieta, Josune Urkidi eta Jesus Maria Azpiazu izan ziren saritutako elgoibartarrak. Dominak jaso ostean, bazkaria egin zuten eta donazioei buruzko anekdotak elkarri kontatuz amaitu zuten eguna.

Baserriko produktuak internet bidez saltzeke web orria jarri du Pello Rublek

Nekazaritza lanbide tradizionala dela uste dugun arren, berrikuntzak ere iritsi dira alor honetara, eta ez nolanhikoak gainera. Horren adibide da Pello Rubio elgoibartarrak egin berri duena.



Bere baserriko produktuak eta nekazaritza ekologikoa promozionatzeko web orria ipini du interneten. www.euskainet.net/txiilarre helbidera joanda baserriko produktuak erosteko aukera izango da. "Ez dut ezagutzen oraindik bere produktuak internet bidez saltzen dituen beste baserritarrik. Nik inguruko herrietako jendeari erosketak egiteko aukera emango diot, eta gero beraien eskura jartzeaz arduratuko naiz. Internet erreminta lagungarria izan daiteke etorkizunerako", esan digu Pellok.



Jaio zireneko 50. urteurrena ospatu zuten larunbatean 128 elgoibartarrek

50 urte ez dira alferrik pasatzen, eta betetzera iristea ere gutxi ez denez, beraien jaiotzaren 50. urteurrena ospatu zuten joan den ekainaren 9an 128 elgoibartarrek. Goizean meza izan zen

Parrokian, eta egun hau gogoratzeko guztiak batera argazkia atera ostean, bazkaltzera joan ziren. Txikitako, gazte sasoiko zein oraingo kontuak izan zituzten mintzagai bazkaldu ondorenean, eta

dantzarako doinuen erritmora gorputza astintzeko aukerarik ere ez zen falta izan. Antolatzaileen esanetan oso egun polita pasatu zuten, guztiak gogoan izateko modukoa.

Osasunak irabazi egin behar dio Realari lehen mailan segi nahi hadu **LAGAKO AL 1010 REALAK OSASUNARI IRABAZTEN?**



ANA IRURETA
32 urte, langabetua

Laga biharko liokeela uste dot. Nik Reala animauko dot. Asko sufritxu arazi diguten arren, azkenian lehenengo mailan mantendu dia-eta.

JOSU ZUBIAURRE
22 urte, ikastea

Neri gustauko jatan Realak lagatzia eta hola, talde euskaldunak lehenengo mailan geratzia baina hori nola ez dauan nere esku...




LAURA MUJIKA
25 urte, ikaslea

Lagako dio, lau ekipo euskaldunak lehenengo dibisivan egoteko. Baina Osasunak Eibarri in ziona in eta gero, nik behintzat ez nieke irabazten lagako.

ERNESTO GARCIA
26 urte, kontsultorea

Bai, eta hala in biharko luke gainera. Osasun lehenengo urtia da primeran eta merezi dau beste euskal taldiekin batera aurrera jarraitzia.



IÑAKI ZENGOTITA
38 urte, harakina

Lagako dio. Realak ez daka ezer galtzeko ezta irabazteko ere, eta Athletiekek Realari ein dion antzera, honek ere utzi bihar lioke Osasunari.

MARIA MENDIETA
33 urte, etxekoandrea

Ez dakit utziko dion, baina ez litzateke gaizki egongo fabore txiki hori egitea. Athletiak ere gauza bera egin zuen Realarekin, eta orain berari tokatzen zaio laguntzea.



- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
- ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!
- IZENA EMATEAN ^{Yoi}OEKO BEHERAPENA



94b4di eijay« ottoam

tetvato4

1 6 ntralus

A 11 T O A M A T

Tel: 943 74 10 11



e

gep z1 0

GEHIGARRI BEREZIA

Etxea eraikitzen ez omen da inoiz teilatutik hasten. Baina behin etxea eginda dagoenean nonbaitetik hasi behar da prestatzen. Etxerik ez dizuegu emango, bai ordea, gauzak behar bezala antolatzeko hainbat argibide. Igeltsero, pintore, elektrikari eta beste hainbat langile sartuko ditugu BARRENeko etxe fiktizioan. Elgoibarko hainbat adituk gure zalantzak argitu dituzte, eta gainontzekoa, norbere kontura. Bakoitzaren aukeren eta ideien arabera gustuko etxea lartzeko gehigarria izatea du helburu guk aurkezten dizuegun honek.

gurria



clxc

paiRcluz

DEKORAZIO GEHIGARRIA

Hasi etxea zolutik lanzen

Etxe guztiko lurra ipintzerakoan, egurrearekin, xaffekin, marmolarekin, keramikarekin... , modu askotako aukerekin topo egingo duzu. Egurrezko tarimak esaterako, gogorragoa izanik, luzaroan iraun dezake. Jendeak haritza eta elondoa aukeratzen ditu tarima jartzeko, baina gogorrena, egonkortasunari dagokionez, irokoa da. Tarima lurrari iltzez edo takoz josita egon ohi da. Beste aukera bat tarima flotantea da; lur zaharraren gainean jartzen da baina kontuan hartu behar dira nibela eta gogortasuna.



*Materialak aukeratu ondoren, aurrekonfua eska ezazu.
Hona hemen guk aukeratutakoarekin aterata zaiguna:*

55m ² ELONDO	8.100 pta./m ²	445.500 pta.
55m ² BARNIZATUA	2.000 pta./m ²	110.000 pta.
52mlzocao SAPELLY	1.300 pta./m ²	67.600 pta.
	Guztira	623.100 pia.



dr~
,9k

Proiektu integralak **egurrean**

Igor Isasmendi
Ander Alkorta



Antonio Arrillaga 14, behea
Tel. 943 74 40 50 • Faxa. 943 74 30 86
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



ATEAK

LEIHOAK

EGURREZKO SABAIK

ARMAIRU ENPOTRATUAK

EDOZEIN MOTATAKO ZORUAK

TARIMA ARTISTIKOAK

BARANDAK

BIGA FALTSUAK etab...

Anclustegui

114

Sanyfer

Bainurako altzariak



Ferreteria Sailsa



g(vz ~ zWij



kolorea, espazio bakoitzari berea

Sortu nahi dugun giroaren eta gustuko estiloaren arabera kolore bat edo beste aukera dezakegu.



Zuria: Garbitasuna eta purutasuna.

Berotasuna eta energia. Sormena indartu eta poza ematen du. Ikasleen geletarako egokia.

Laranja: Intimitatea. Gorriarein eta horiarekin erraz konbinatzen da.

Gorria: Erromantikoa. Pasioaren kolorea, atentzioa deitzeko.

Berdea: Freskoa eta lasaia. Oreka eta armonia.

Urdina: Lasaitasuna, freskotasuna eta misterioa.

Espazioak handitzeko.

Turkesa: Erosotasuna.

Iluna: Elegantzia.

Morea: Femeninoa eta sentsuala.

Goxotasuna

Espazioa handitzeko zuria, urdina eta hori argia dira kolore egokiak. Giro intimoa sortzeko kolore gogorrak edo oso argiak erabiltzea komeni da. Etxea iluna bada, berriz, kolore beroak (okre edo horia) edo freskoak (berdea edo urdina).



Subinas

dekorazioa

~ez Arregui, 9 behea

20730 AZPEITIA

Tel.: 943 150 017 Faxe: 943 157 113

E-maila: decosubinas@terra.es

www.subinasdecoracion.com



dekorazioa

Altzariak eta dekorazioa

Barne proiektuak

Obren zuzendaritza


Bulegoen instalazioa

Argiak

Ohialak

**Alfonbretan
erakusketa handia**

**Designers guild
Malabar, Elites, Osbornes, etab.**



ASKETA IGELTSERITZA

Osio, 7 Deba
Di 629 344 389

ARAMAR ELEKTRIZITA

Morkaiko, 1
943 741 280

LODOSO AROZTEGIA

Ermuaranbide, 16
S' 943 743 490

**GLAS CONTROL
ISOLAMENDUAK**

Olaso 27,47. pabilioia
r 943 743 094

ZABALA AROZTEGIA

Deba kalea, 16
1T 943 740 396

IPINTZA PINTURAK

Foruen enparantza, 4
Ir 943 740 440
11 607 740 440

TELLABIDE ITURGINTZA

Azpilgoeta, 19 Mendaro
17 943 755 062
Yr 607 755 062

ANGEL ITURGINTZA

Santa Ana, 5
n 943 741 761
13 689 049 206

ARTETXE GARRAIOAK

Azpilgoeta, 16
tr 943 755 083
655 706 557

GABILONDO PROIEKTUAK

Ubitarte, 4-5 esk.
943 744 599

ZALDUA ITURGINTZA

Urasandi, 26
943 740 530

URZELAI ELEKTRIZITATEA

Santa Ana, 12-14
Tr 943 741 376



JOSE PINTURAK

San Bartolome, 28
943 741 255

ONGI ITURGINTZA

Urasandi,
943 741 08

MENDEZ IGELTSERITZA

Urasandi, 24
943 742 987
tr 679 197 747

SORALUZE AROZTEGIA

Santa Ana, 8
943 743 634

ZUBIZARRETA ITURGINTZA

Ubitarte, 5
17 943 740 789
72 608 143 040

BARANDELA IGELTSERITZA

Errosario 29, behea
tr 607 741 510



J. CARLOS ITURGINTZA
Ubitarte, 11
943 743 487

810K DEKORAZIOA¹¹

Santa Klara, 11 behea
-; 943 741 552

m 606 421 110 21

GARCIA AROZTEGIA
P. Muguruza, 30
17 943 743 238

P.P. BERISTAIN
San Roke 30, behea
943 743 652

B1ENA AROZTEGIA
Ernuaranbide, 16
943 743 116

IPINTIA IGELTSERITZA¹¹¹⁹

Trenbide, 25
tr 630 959 758-7
Faxa: 943 744 597

BETELU AROZTEGIA
Urasandi, 2
71 943 740 841

PAGOAGA ITURGINTZA
San Antolin, 13
Tr 943 740 279

BETI ARGI ELEKTRIZITATEA
Errosario, 6
s. 943 741 644

CORDON VILLARCHAO

San Roke, 7
tr 943 742 874

ELGOIBAR AROZTEGIA
San Roke, 14
943 743 949

ULAZIA AROZTEGIA
Santa Klara, 10
17 943 740 547

JAVI ITURGINTZA

Erretxindi, z/g
Tr 659 772 932

44,

A. MARKEZ IGELTSERITZA
Urasandi, 24
943 743 418

IRIONDO AROZTEGIA

01aso 17, behea
12 943 744 369

ALVAREZ AROZTEGIA
Ermuaranbide, 16
75 943 744 225




Nolako sukaldeak daude gaur egun merkatuan?

Etxebizitzen prezioek gora egiten dute eta metro karra-tuei probetxua ateratzeko egongelei espazioa ematen zaie. Honen ondorioak sukaldeak jasan ohi ditu, gero eta txikiagoak baitira.

Gaur egungo sukaldeetan osagarri modernoak eta betiko materialak konbina ditza-kegu; armairu rustikoak (edo-zein kolore eta motatakoak) altzairu inoxidablezko elektrodomestiko edo osagarrie-kin. Hona hemen espazioa ondo banatzeko erabil daitezke- en trukoak:

- Leku txikian sukaldeko tres- na ugari sartu ahal izateko ez



dago armairu irristakorrak bezalakorik: traste pila bat sar dezakezu, botilak, kazue- lak... eta beste era batera aprobeztatuko ez zenituen txokoak baliagarriak izango dira.

- Erroberadun moduloei zuku handia ateratzen zaie. Horreia, entzimeren azpian jartzen badituzu, edozein lekutara mugi ditzakezu eta gainak mahaitzat erabiltze- ko aukera emango dizu. Sukaldearen goiko partean ate eraisgarriak ipiniz gero, ateeke trabarik ez dizue egingo bertatik zerbait har- tzerakoan.

Sofia

Ibaiondo 18, 1. planta • AZKOITIA
Tel. 943 85 17 57 • Fax. 943 85 17 57 • Mobile, 35.9, 925, 7



Lohal eta etxehizizetaho erreformah - Gremio talde OSOd H011ffird egindaho altdzriah, diseinua eta fahrihazioa - Tapizeria, gortinah, alfonhrah eta erxeraho apaifigarriah

DEKORAZIO PROIEKTUAK



77-1,W77-

ontziterio



"Michiko" ontziteria

Plater zapala 1.589 ptalbako itzeko

Plater sakona 1.589 ptalbakoitzeko

Postrerako platera 1.450 pta ibakoitzeko

Kafe-katilua platertxoarekin 3.178 ptalhakoitzeko

"Tila" ontziteria

Plater zapala 1.380 plallmkoitzeko


Plater sakona 1.380 ptajbakoitzeko

Postrerako platera 1.264 pia.tbakoitzeko

Kate-katilua platertxoarekin 1.380 plalbakoitzeko



or e
111



1111
Ekir_

FTXE BERRIA

t de. cr tres ter ia



Garmendipe, 1 (Landeta Auzoa) AZPEITIA • Tel. 943 81 21 46
Futbol zelaiaren aurrean.

sofa eroso, atseden goxoa

Egongelan ez ezik etxean ere protagonismoa hartzen du sofak. Beraz, ezinbestekoa da sofa egokia aukeratzea. Sofa eroso den ala ez jakiteko orduan honako ezaugarriak hartu behar dira kontuan.

Sakonera: Eserlekuaren sakonera probatzeko ahalik eta atzeren jarriko gara, eta hankak lurrera iritsi beharko dira.

Altuera: Sofan jartzean jakingo dugu zein den altuera egokia.

— Mokorra ez da belauak baino bajuago geratu behar, eta sofatik laguntzarik gabe altxatzeko modua egon behar da.

— Giltzurrunen parte ondo eutsi behar du, erabat babestuta. Bestalde, buruak ere euskarria izart behar du, lepoak atsedean hartzeko.

— Besoak sofan jartzean, hauek ukalondoaren altueran geratu behar dira, ez beheago. Bestela, bi orduren buruan deseroso egongo gara.



Fructo

SANTA ANA 4 eta 6 · TEL. 943 74 12 34



aukeratu zure estiloa



**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
DEKORAZIOA**

EIBARREN ERE BADUZU ZURE ETXEA APAINZKEKO LEKURIK

F. URQUIDI

Interiorismoa
Proiektuak
Berrikuntzak



Kontrasteak aberatsagoa egiten du emaitza 1


Bidebarrieta, 27 • Tel./Faxa: 943 20 01 51

1.441. 4\11



Desván
dekorazioa eta proiektuak

San Agustin, 2 • Tel./Faxa: 943 20 37 62



attrezzo ARMAIRUAK
Arragueta, 7 • Tel. 943 12 71 96



argiztapen egokiak pizten ditu tokiak



Etxe asko eta askori bizitasuna falta zaie argiztapen egokirik ez daukatelako. Argi naturala garrantzitsua da eta kontuan hartu behar den lehen gauza. Hala ere, argi artifizialak joku gehiago eskaintzen du. Txokoei nortasuna emateko balioko digute. Efektu desberdinak lor daitezke:

Wolframiodun argiekin

giro epela lortzen da.

Halogenoekin

garbitasunaren sentsazioa izango dugu

Fluoreszenteekin

formarik ez proiektatzea lortuko dugu.

*Kontuan hartu gela bati **ARGITASUNA** emateko **trukoak** ere erabil daitezkekr:*

- 1.- Argi naturalari sartzen lagaizeko, kortina finak ipini.*
- 2.- Paretak kolore txuriekin edo argiekin margotu.*
- 3.- Argi gutxi duen txoko batek atentzio gehiago emango du tela **naturalekin** eta txuri edo **krema koloreko kojinekin** dekoratuta.*

M

sukalde eta bainurako altzariak



KALITATEZKO ALTZARIAK

KtASIKOAK

MODERNOAK

ERRUSTIKOAK

Banatzailea

Febal

Neurrira egingo dtzugu zure ametsetako etxearen protektua

Ezagutu mundus EGUNKARIArek'n1,



Ekainaran
17tik
aurrera erosi
EGUNKARIA,
eta irabazi
24 bidaiatarako
txartela



Jaso DOAN
elastiko
dotore hau
eta ZATOZ
GUREKIN!!



Babeslea:

MilNOOD

ULERTZEKO



Egunkaria

AL..... HALCON BIDATAK

Bidaia kulturala egin dute Ikastolakoek Segovia eta Toledora

Argazkian agertzen direnak Elgoibarko Ikastolako DBH2. mailakoak dira. Hiru egunetako bidaia kulturala egin berri dute Madril, Segovia eta Toledo bisitatuz. Aipatutako lekuetan eraikin eta aztarna kultural nagusienak eta ezagunenak ikusi zituzten. Argazki hau adibidez, Madrilgo Escorialean aterata dago. Elgoibartarren tartean agertzen den gizon bizarduna Escorialeko gidaria da.



Herri Eskolako ikasleek eta gurasoek Orion pasa zuten asteburua

Herri Eskolako 70 guraso eta ikasle Orioko "Txurruka" barnetegian izan ziren duela pare bat asteburu. Kurtsoan zehar pilatutako nekeak baretzeko, merezitako atsedena hartzeko asmotan joan ziren haur eta gurasoak elkaffekin. Dena den, ez ziren lasai-lasai eguzkia hartzen egon; mendira irteera, portura ibilaldia eta beste hainbat gauza egin baitzituzten. Gaztetxoek argi zuten, ordea, pizinan plisti plasta-pasa zituzten orduak izan zirela onenak.

Ikastotaren Eguna zapatuan, ekainaren 16an, izango da

Aurreko urteetako ohiturari jarraituz, zapatuan, ekainaren 16an, "Ikastolaren Eguna" jaialdia antolatu dute Elgoibarko Ikastolakoek. Bertan, Ikastolako partaide guztiek (ikasle, guraso, irakasle...) hartuko dute parte ikasturte bukaera gisa eta eskolaz kanpoko jardueren amaiera bezala. Goizeko 12:00tik 14:00ora bitartean Ikastolara hurbiltzen diren guztiek atea irekita izango dituzte eta haurrentzako gunea ere izango da. Arratsaldean, 14:00tik 16:00ora, bazkariaren txanda izango da. Ondoren, kirol entrenatzaileen aipamena egingo da. Azkenik, haurren gunea berri zabalduko da 16:00tik 18:00ora bitartean.



Gurasoen Eguna Pilar ikastetxean

Pilar Ikastetxeak Gurasoen Eguna ospatu zuten pasa den maiatzaren 26an. Egun seinalatu honetarako ekintza ugari antolatu zituzten: futbol partiduala, bingoa, mus txapelketa eta era guztietako jolasak. Bazkaria eta afaria ere Pilar Ikastetxean bertan egin zuten guraso, irakasle eta ikasleek eta giro ona eta alaitasuna nagusitu zirela aipatu digute. Bestalde, ekainaren lehen, DBH4. mailako ikasleei agurra egin zieten irakasle eta gurasoek, aurtengoa azken ikasturtea izan baitute Pilar Ikastetxean. Agurrean diplomak eta oroigaffiak banatu zizkieten ikasleei.



Nahaste Borraste proba ostegunean, hilak 21, jokatu da Aurten, kaskoa derrigorrezkoa izango da

imetz Elkarteak antolatuta, hilaren 21ean, guenean, arratsaldeko 19:00etan hasiko da Nahaste Borraste kirol proba henikoiaren 17. edizioa. Ohi bezala, 3 kirol ezberdin egin beharko dira: bizikleta, aintxintxika 25 edo 10 kiloko zakua bizkar gainean hartuta eta saltaka. Nagusien lasterketa (16 urtetik gorakoak) bizikleta gaineko probarekin hasiko da Plaza Handitik.



Frantzisko eta Errosario kaleetan zehar izango da (1,4 km.).

Gaztetxoak, 10 eta 16 urte bitartekoak, Kimetz Elkarte paretik hasiko dira. Ondoren, leku hauetatik pasako dira: Sigmako zubia, 634 errepeidea, Meliton, Madala, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handia. 10 kiloko zakuarekin nagusien ibilbide bera egingo dute eta saltakako azken proban 1000 metroko ibilbidea burutu beharko dute herriko kaleetan

ibilbidea

Honakoa izango da ibilbidea: Santa Ana kalea, 634 errepeidea, San Antolin, Karkizao-gaina, Madala, Ermuaran Bide, Ibarrenea, Ibartxiki, Erretxindi, Artekale, P.M. Urruzuno kalea, San Frantzisko, Errosario eta Plaza Handian amaituko dituzte txirindu gaineko lanak. Segidan, 25

Iazko proban, nagusietan 15 lasterkarik hartu zuten parte eta gazteen mailan 14k.

kiloko zakua bizkar gainean hartuta, San Bartolome eta Errosario kaleak pasatu ondoren, Plazara iritsi (0,5 km) eta saltaka hasiko dira. Saltakako ibilbidea, berriz, Santa Ana, Trenbide, B. Ezenarro, S.

Antolatzaileek adierazi digutenez kaskoa janzte derrigorrezkoa izango da. Lehenengo hirurek, lehen emakumeak, lehen beteranoak, lehen gazteak eta azken lasterkariak jasoko dute saria. Gainontzeko parte hartzaileen saria, Kimetz elkartearen egingo duten afari herrikoia izango da.

Eskola Kirola 2000-2001 ikasturteko sariak banatu dira



Trinitate jaiak aprobetxatuz, pasa den zapatuan, ekainaren 9an, banatu ziren Eskola Kiroleko sariak Mintxetan. Kurtso hasieratik Elgoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuko haurrak aritu dira hainbat kirolatan. Eskubaloia, Saskibaloia, Futbol 7 eta Areto Futbola izan dira taldekako kirolak. Guztira benjamin (8-9 urte), alebin (10-11 urte), infantil (12-13

urte) eta kadete (14-15 urte) mailako 714 haurrek hartu dute parte taldekako kirolatan. Banakako kirolak, berriz, honako hauek izan dira: atletismoa, xakea, txirrindularitza, esku pilota, gimnasia erritmikoa, igeriketa, eskalada, arku tiraketa eta tenisa. Kasu honetan, 818 haurrek hartu dute parte. Gehien atletismoan (120 haur) eta gutxien judoan (20 haur).

Taldekako irabazleak

Futbol 7

Alebin mut.: Lagunak Mutriku
Alebin nesk.: Elgoibarko Ikastola B
Infantil mut.: Elgoibarko Institutua B
Infantil nesk.: Elgoibarko Institutua

Eskubaloia

Alebin mut.: Elgoibarko Ikastola C
Alebin nesk.: Elgoibarko Ikastola A
Infantil mut.: Elgoibarko Ikastola C
Infantil nesk.: Elgoibarko Ikastola C

Saskibaloia

Alebin mut.: Elgoibarko Ikastola B
Alebin nesk.: Elgoibarko Ikastola A
Infantil-Kadete mut.: Elgoibarko Ikastola Kadete.a

Areto Futbola

Oraindik finalak jokatu gabe daude

merkatu txikia

Langai

Euskal Lan Zerbitua

Debabarreneko enpresa baterako **produkzio arduraduna** behar da. **ERREF: 52054/4.**

Debabarreneko enpresa baterako **teknologi berrien garapeneko teknikaria** behar. **ERREF: 51065/5.**

Aldi baterako ian kontratazio enpresa batek Ermuako lanpostu baterako **prentsarako arduraduna** behar du. **ERREF: 52923/2.**

Donostiako enpresa baterako **komertziala** behar da. **ERREF: 53718/2.**

Donostialdeko enpresa baterako **bisitzailea** behar da. **ERREF: 54048/0.**

Durango inguruko enpresa baterako **soldatzailea** behar da. **ERREF: 54185/0.**

Eskainiza hau interesgarria gertatzen bazatuz eta lortu nahi izanez gero, gogoan hartu eskointzaren erreferentzia. Hautogai moduan sartzea eskatu nahi bacluzu **901222901** telefonora deitu edo 'Langark Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauerako batera deihi Elgoibarko Institutua (Alberto Iurrucastillo) **943 74 80 19** edo IMH (Ekaitz Mendizobol) **943 74 41 32** telefonora,

Lana

ESKAERA

• Uztailean umeak zaintzeko prest nago. is **699 18 37 90.** (Gauetz deitu).

• Emakumeak bere burua eskaintzen du garbiketa lanetarako. Justa. z. **943 74 35 05.**

• Neska euskaldunak bere burua eskaintzen du goizetan tabernan lan egiteko. Arratsaldeko 16:00rak arte. Jangelan eta barran esperientzia dut. E **943 74 31 20.**

• Emakumeak bere burua eskaintzen du etxeak edo bulegoak garbitzeko. tr **943 74 22 01.**

ESKAINTZA

• Emakumea behar da etxeko lanak egiteko eta bi ume zaintzeko **tr 600 66 23 55.**

* Zubi Ondo Elkartean garbiketa lanetarako pertsona behar da. rrs **943 74 24 69**

• 9 urteko ume bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakumea behar da. -zr **656 78 98 82.**

• Astegunetan lan egiteko kamaretorra behar da. ir **943 74 42 65.**

Etxebizitzak

♦ Etxe bat alokatuko nuke Elgoibarren edo inguruan. (Ana). **tr 943 74 02 57/ 943 74 80 65**

• Buhardilla salgai Santa Ana kolean. Prezio onean. Berritzeko. **tr 943 49 29 49.**

• Eigoibarren edo inguruan pisu baten bila alokairuan, beste norbaitekin konpartitua edo logela soilik. **te 678 38 35 61/ 943 74 31 75.**

• Apartamentua alokatzen da Torre Viejan udako hilabeteetan. Piszinarekin eta hondartzatik gertu. **tr 943 74 23 63.**

• Pisia alokatuko nuke Elgoibarren edo inguruetan (Eibor, Mendaro, Ermua,...). **tr 652 74 44 34.** (20:30etik 22:30era deitu).

• Pisu berria alokatzen dul Elgoibarren. Janizita dago. n. **943 20 30 83.**

• Donostian bi etxebizitza alokatzen ditugu udarako. Hondartzatik hamar minutura oinez, Egia auzoan. zr **617 74 95 09.** Elena edo

• Pisia behar dut. Logela eta orropa garbitzeko eskubidearekin. Erdigunean. **tr 943 74 42 92.**

Garajeak

• Garaje axia salgai dason, **943 74 31 37.**

Partikularrak

• LHko klase partikularrak emango ditut uztailean. ir **943 74 20 94.** Yolanda.

Bestelakoak

• Ekainaren 4an, astelehenean, urrezko medailoia galdu nuen Eroskitik San Roke-ra bitartean. Juan eta Josefa izenak grabatuta duiu. **it 943 74 17 18 (Josefai).**

• 12 urteko mutikoarentzat arropa behar da. Oinetakoak batez ere. **tr 943 74 20 44.**

• Billabong markako kartera urdina galdu dut. Aurkitu duena saritua izango da. **tr 943 74 34 86.**

• Graduatutako betaurrekoak galdu ditut Plaza inguruan. Funda barruan daude eta boligrafo bat ere badago bertan. **tr 943 74 18 55.**

*Monopatina galdu dut Madalatik San Frantzisko iturrira bitartean. Aurkitu duenak udaltzaingora eraman dezala

*Be)arritaka bat galdu dut Elgoibarko kaleetan. Sorituko da. **Tr 943 74 17 95.**

Saieroske/ak

• 2i klomotorra salgai. RI Spike grisa. **tr 627 32 65 11 (Javi).**

• Logela rustikoa salgai: ohea, kornoda eta "tokadarea"-rekin. er **943 74 45 21.** 120:00tik aurrera)

• RS-1 motorra salgai. 50 zk. Molorra aldatu berria du. Juanjo. **tr 943 74 35 26.** (Arratsaldez deitu).

♦ Opel Corsa saltzen da. Km gutxi. **tr 677 99 16 37.**

• Bulegoko materiala salgai. Egoera onean. **13. 677 51 05 97.**

*90eko bi ohe, armairu bandi bot eta bi "mesilla" salgai. Ohe bat estreinatua gabe dago. Prezio onean. te **943 74 24 57**

(Eguerdian edo iluntzean deitu).

1"

1

MON DRAGON
IMBERTSITATEA

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO FAKULTATEA
FACULTAD DE HUMANIDADES Y CIENCIAS DE LA EDUCACION

INSKRIPZIO EPEA ZABALIK DAGO

ESKAINITAKO TITULUAK

- HUMANITATEAK-ENPRESA LIZENTZIATURA

EGOKITZE KURTSOA (HUMANITATEAK-ENPRESA LIZENTZIATURAKO 2. ZIKLOAN SARTZEKO)

• IRAKASLETZA: HAUR HEZKUNTZA, HEZKUNTZA BEREZIA ETA ATZERRIKO HIZKUNTZA DIPLOMATURAK

• HIZKUNTZEN PSIKOPEDAGOGIA ZIKLOA)

lierta emateko epea

Ekainaren 20ra arte
Ordutegia: 8:30-12 eta 14:30-17:30
(ostiral arratsaldeak izan ezik)

INFOFIMAZIOAL Mariu aaaaaa barraga
HUHEZIKO idazkaritzan, Dorleta auzoa, zig -10540 CSKORIATZA (Gip...koa)

Telefona 943 71 41 57 Fmc 943 71 40 32

Web: www.mondragon.es

/

9

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

1 943 82 01 09

1 Faxe: 943 82 01 62

Indalezio Ojanguren 2, behea

*20600 EIBAR

Agurrak

- Zorionak Ander Leoni, ekainaren I 9an urteak beteko dituelako. 4. mailako eta bereziki, zure ulagunen" partez.
- Zorionak Kimiri, atzo, hilak 14, 13 urte bete zituelako. Ono pasaluko zenuelakaan... DBHleko lagunak.
- Zorionak Joanesi, hilaren 1In 14 urte pobxolo bete zituelako, Zuk dakizun batzuen partez eta bereziki baten partez.



- Zorionak Caritio. Zure partez 26. urtebetetzear. Badakizu, animo eta beti aurrera, vale!



- Zorionak Edu, berandu bada ere. Gogoan zaituzten lagun berezi batzuen partez.



- Zorionak gure lagun departistari, hilaren 1 9an urteak beteko dituelako. Zorionak Nahial Zure lagun katxonden partez.



- 4 Zorionak Haritz Igartuari. Muxu handi bat eta ia zure urtebetetze eguna oso ondo pasatzen dezun. Tia Ana, M. Luisa, Arantza eta etxeko partez.



- Zorionak Ibare Barberori, ekainaren 14on 6 urte bete zituelako. Ama!xo, aita!xo eta familiako partez.



- Urtiek ez dabe barkatzen, eta konbiterik ez in arren zeozertara inbitauko gaxkuzu, ezta? Zorionak eta animo. Etxekuak.



- Kursua bukatu dala eta oporrek in pentsatzen? Guk berriz zure egunakin akordatzen pasau dogu astia. Zorionak eta muxu bat. Lagunak.



- + Zorionak Juleni, bihar, hilak 16, 7 urte beteko dituelako. Ama M, Jesus, ailxitxa eta amama Jesus Mari, Begoita eta osaba Xoloi eta Gorkaren partez.



- + Zorionak Unairf, hilaren 17an 3 urte beteko dituelako. Familiako partez.



- + Zorionak Josetxuri, hilaren 13an urteak bete zituelako. Familiako partez beste horenbeste 6ete ditzazula.



- Zorionak alta. Julene eta Olaiaren partez.



- Zorionak Ander Mugerzari, hilaren Wart 2 urte beteko tuelako. Familiako eta bereziki, gurasoen partez. Sartu uttietia barrural



- Zorionak Oihana gaur 18 urte bete dituelako. Azkanean bukatu dira selektibitateko azterketak. Orain, disfrutatu. Etxeko eta bereziki, Leireren partez.



- Zorionak Eneko, gaur, hilak T 5, lehen urtea bete duzulako. Gurasoen, aib<itxa-amomen eta bereziki, zure arrebatazen partez. Zorionak pototi!

Farmazia - okindegia

EGUNEZ

- 16 Yudego
- 17 Yudego
- 18 Zabaleta
- 19 Etxeberria (Erroseri!mleon)
- 20 Escala
- 21 Bidasolo
- 22 Etxeberria (San!a Ana kaleani)

GAUEZ

- Yudego
- Yudego
- Zabaleta
- Etxeberria
- Escala
- Bidasolo
- Etxeberria

FARMAZIAK

ESCALA, Rekalde, 1 Soroluze. Tel: 943 75 16 38
 FERNANDEZ, Herrike enp.4, • Garagarza. Tel: 943 75 61 42
 ZABALETA, Kale!aarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OK1NDEGIA

17 igandea Eizagirre



- Zorionak Elena Iarizf, hilaren I 2an 7 urte bete zibetako. Etxeko, lagun eta bereziki, Gorka eta Jonen partez.



- Zorionak gure lagun ponpoxeri, hilaren 12an urteak bete zituztelako. 4. mailako eta bereziki, zuen lagun mar!xosen partez.



- Zorionak Joanes eta Maddi Etxaberi, 7 eta 5 urte bete dituztelako. Aita!xo eta amotxoren partez.



- * Zorionak Josuri eta Aneri, 8 eta 5 urte bete zituztelako. Muxu handi bat fam!liaken partez.

LAN eskaintza



BARIFIAN
lan egiteko
KAMAREROW
(neskak zein mutlak)
behar dira

UZTAILEAN, ABUZTUAN
eta **IRAILEAN.**

Unean segitzeko aukerarekin

Infonnazio gehiagontko eta izena entateko:

ELGOIBARKO IZARRA

Ubitarte 4, behea

Tel. 943 74 16 26

kena emateko azken eguna: ekainak 22

15 BARIXAKUA

19:00 **KONTZENTRAZIOA**

Prekariatatearen aurka

Plaza Handia

Antolatzaileak:

Elgoibarko Gutun Soziala

22:15 **ZINE KLUBA**

"Las flores de Harrison"

Antolatzaileak: Ongarri Zine Kluba eta

BARREN astekaria

16 ZAPATUA

12:00 **ZAZPIKI IRRATIAREN**

BATZARRA

Ganbaran

16:00 **NESKEN NAZIOARTEKO**

JUDO TXAPELKETA

Olaizaga Kiroldegian

19:30-22:15 **ZINEA**

"Eel regreso de la momia"

17 DOMEKIA

11:00 **EIBARKO MUSIKA**

BANDAREN KALEJIRA

12:30 **EIBARKO MUSIKA**

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian

18:45 **GELATXO ORKESTRA**

Plaza Handian

19:30-22:15 **ZINEA**

"El regreso de la momia"

18 ASTELEHENA

22:15 **ZINEA**

"El espinazo del diablo"

19 MARTITZENA

19:30 **BATASUNA PROZESUAREN**

BILERA

"Erakunde berriko karguen aukeraketa"

Kimetz Elkartearen

21 EGUENA

19:15 **NAHASTE BORRASTE**

LASTERKETA

Irteera: Plaza Handitik

Antolatzailea: Kimetz Elkartea

21:30 **ZINE KLUBA**

"Las huellas borradas"

22 BARIXAKUA

18:00 **LAGUNAK PILOTA**

TXAPELKETAKO FINALAK

Plaza Handian

20:00 **ALKOHOLIKO ANONIMOEN**

TXARLA IREKIA

Santa Klarako konbentuan

ZINE
kluba



"Las Huellas Borradas"

Zuzendaria: Enrique Gabriel

Antzezleak: Federico Luppi, Mercedes Sampietro, Elena Anaya.

Higueras herrixka Leongo probintziako gune menditsu eta gogor batean kokatuta dago. Herritarrek une garratzak bizi dituzte. Aurki, urak estaliko baitu herria urtegi bat eraiki ahal izateko. Honen berri izatean Manuel Perea bere jaioterrira itzuliko da Argentinan urte luzez bizi ostean. Manuel idazlea da eta aspaldiko lagunak bisitatu eta neskalagun bat berreskuratzeko itzuli da. Herritarrekin hitz egiten hasi orduko konturatuko da urtegia eraikitzearen aurka dauden bizilagun asko daudela. Hauen artean Don Jose maixu zaharra.

JAIK

Sanmigeldarren Eguna

Sanmigeldarren Egunean (ekainak 17) San Migelgo Elizaren berrikuntzaren ondorengo inaugurazioa ospatuko dute auzotarrek. Egitaraua honakoa izango da: 11:30ean arta nagusia. Ondoren, salda eta txorizoa banatuko dira. Eguerdiko 12:30ean auzotarren arteko pilota partiduak jokatu dira Murkaikupe frontoian. 14:30ean bazkaria, eta ondoren, Ostolaza eta Pujana trikitilarielcin dantzaldia izango da.

Urruzuno auzokojaiak

Bihar, hilak 16, ospatuko dira Urruzuno auzoko jaiak. Arratsaldeko 17:15ean emango zaie hasiera jaietxapligu jaurtiketarekin. Ondoren, meza izango da. 18:15ean trikitixa saioak alaituko du giroa eta 18:30ean tripa betetzeko aukera izango da luntzarekin. 19:30ean haurrentzako jolasak hasiko dira eta 21:00etan, beniz, afaria.

KIROIAK

Morlaika Mendizale Elkartek urtero antolatzen duen Finalista Eguna ekainaren 24an, domekan, izango da San Pedron. Goizeko 10:30ean hasiko dira ospakizunak pintxo jana eta txaranga doinuarekin. Eguerdiko 12:00etan domina banaketa hasiko da. 14:00etan bazkaldu aurretik berriz txaranga gozatzeko aukera izango da. Azkenik, arratsaldeko 17:00etan Atxurxiamaika Begirale Taldeak hainbat jolas egingo ditu. Bazkarirako txartelak (2.800 pta.) Morkaikoren egoitzan daude salgai.

HITZALDIAK

Alkoholiko Anonimoen Elkartek txarla irekia antolatuko du. Datorren ekainaren 22an, barixakuan, Santa Klarako konbentuan. Arratsaldeko 20:00etan hasiko da hitzaldia eta joan nahi duen edonork dago gonbidatuta. Elgoibarko Elkartek 16. urteurrena ospatzen du aurten. Hori dela eta elkarteak kideek, familiakoek eta lagunek bazkaria egingo dute saioa bukatu ostean.

1.131IAKETA

Udaleko Kultura Batzordeak 2001eko San Bartolome jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du. Edozein teknika erabili ahal izango da. Lanak euskarri gogorrean aurkeztu beharko dira eta neurria A2koa izan beharko da. "Elgoibar, San Bartolome jaiak 2001" eramango dute idatzita lanak. Lanak Kultur Etxean aurkeztu behar dira Uztailaren 5a baino lehen. Lehenengo saria 60.000 pezetakoa izango da eta Elgoibarko lehenengoarentzat 15.000 pezetako sari berezia egongo da. Hurrek ere izango dute parte hartzeko aukerarik, eta 18 urtetik beherakoen anean sei sari banatuko dira.

ERROMESAIDIAK

Domekan, ekainaren 17an, Arantzazura erromesaldia izango da "Corpus Cristi" eguna ospatzen dela-eta. Sigmako zubiko errotondatik irtengo dira erromesak goizeko 9:45ean. Arantzazura ailegatutakoan eguerdiko 12:00etan ospatuko da meza nagusia, eta 14:00etan Ostatuan bazkalduko dute. Arratsaldeko 17:00etan errosarioa eta agurraren ostean, etxeruntz itzuliko dira. Bidaia eta bazkariaren prezioa 3.000 pta.koa da. Izena Murua gozotegian eman daiteke. Azken eguna gaur, hilak 15, da.

DANTZA

Mendaroko Dantza Eskolak kurtso bukaerako emanaldia eskainiko du bihar, ekainak 16, Mendaroko pilotalekuan 22:00etatik aurrera. Josu Mujika dantzari elgoibartarraren koreografiak dantzatuko dituzte Mendaro eta Debako ikasleek. Egunon, Pizzikato, Ilunabarra, Kaixo, Eskolatik Urtetean, Zazpikoa eta Miramar izeneko dantza ikuskizunak eskainiko dituzte, guztiak ere musikari ezagunen musikaz lagunduta.

zine

KARTELDEGIA

EL **0113 R Herrik ntzokia**

"Las flores de HARRISO

Barixakua: 22:15

"El Espinazo del diablo"

Zapatua: 19:30-22:15

Domekia: 19:30-22:15

Astelehena: 22:15

"Las huellas borradas"

Eguena: 21:30

Y. BIV.

"Brother"

Barixakua: 19:30-¹¹:15

Zapatua: 17:00-19:30-¹²:15

Domekia: 17:00-19:30(1-1):15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: 19:30-22:15

Eguaztena:

"Juerga de solteros "

Barixakua: 19:30-22:15

Zapatua: 17:(10-19:30-22:15

Domekia: 17:00-19:30-22:15

Astelehena: 19:30-22:15

Martitzena: *19:30-*22:15

"Los rios de color ptiapura"

Barixakua: 22:30

Zapatua: 19:30-22:30

Domekia: 19:30-22:15

Astelehena: 19:30

"Manuelita"

Zapatua: 17:00

HARRI Neki ez du gora hiezkeen emankiden
aldaketan eraginazuzunik



HEl regreso de la momia"

Zuzendaria: Stephen Sommers.

Antzezleak: Brendan Fraser, Rachel Weisz, John Hannah.

Momia (Im-Ho-Tep) azken aldiz ikusi zutenetik 8 urte pasa direnean, Rick O'Connell eta bere Londresen bizi dira bere semearekin batera zoriotsu. Baina Sahara desertuko are azpian aurrekoa baino amezgatzto larriagoa azaleratzen dago. Duela 6.000 urte Escorpion erregea izeneko gudari batek Anubis jainkoa traizionatu zuen eta baita honen maldizioa jaso ere. Orain, bere patuari aurre egin behar dio Escorpion Erregeari; Anuhisen gudalosteak gidatuz zibilizazioa suntsitu.. Bien bitartean, talde misterioitsu bat Im-Ho-Tep momia berpiztu nahian dabil Escorpion aurre egin diezaion.

IKASTAROAK

- ✓ Monografikoak
- ✓ Intentsiboak
- ✓ Pertsonalizatuak
- ✓ Enpresa



Informatiko

Jacinto Olabe, 6 -E1BAR-

CTI INFORMATIKA

n.º 943 120 156 Ikasnetlitterra.es

IKASGAIAK

- ✓ Windows
- ✓ Internet
- Testu tratamendua
- ✓ Kalkulo orriak
- ✓ Datu Baseak
- ✓ Autoedizioa
- ✓ Programazio lengoaiak
- ✓ Kontabilitatea
- ✓ Nominak



*informatika
zentru teknikoa*

Udako Ikastaroak UZTAILEAN

GOIZEZ

08.00 - 09.00

09.00 - 10.00

10.00 - 11.00

11.00 - 12.00

12.00 - 13.00

c.

13.00 - 14.00

BOSKO REHT

GARBIKETA • MANTENIMENDUA • AUTOEN ALOKAIRUA

OLIORREN EDO FILTROEN AIDAKET11
PNEUMATIKOEN AZTERKETA ETA ALDRKETA
BALAZTEN ETA ESEKIDURAREN AZTERKETA
MANTENIMENDU OROKORRA

*(9#ralo pot5oijo ietv-vairptc-&4(stala27:oad ,kftatz&t-a rijilattré
zartya &ta,at-itieta autairratiaa qaw--/Calo c&apc,*

on-- **902 103 287**

ZATOZ GURE ERAKUSTOKIA IKUSTERA

kno

**BUKAERA EKOLOGIKOA
BARNIZ KIMIKORIK GABE**

mulz\` 1\
j le/A`f(1

EGuRREZKO p,x_11).50.1(

GAZTAINONDO ETA GEREZIZKO ALTZARIAK



eraman itzazu zure etxera fabrikako prezioetan



Gr.7111.1



KONTSUMO
ARBITRAIA

LASAO ALTZARIAK S.L.

Lasao poligono industrialia 20730 AZPEITIA • 124 Postakutxa • Tel. 943 151 182
Faxa: 943 151 098 - E-maila: informacion@lasao.com

Dasstondo, s.L.

EDARI BANATZAILEAK



ZILARREZKO DOMINA
MARQUES DE CARRIC5N TEMPRANILLO
KRIANTZA 1995
D.O. RIOJA

ZILARREZKO DOMINA
MARQUES DE CARRIN ERRETSERBA 1989
D.O. RIOJA



BRUSELAS 2001 MUNDU LEHIAKETA



ZILARREZKO DOMINA
JAUME SERRA CHARDONNAY 2000
BARRIKAN FERMENTATUA
D.O. PENEDÈS

ZILARREZKO DOMINA
JAUME SERRA BRUT VINTAGE KABA
D.O. CAVA



AIPAMEN BEREZIA
JAUME SERRA KRIANTZA
D.O. PENEDS



IX. VINITALY 2001 NAZIOARTEKO LEHIAKETA ETNOLOGIKOA



AIPAMEN BEREZIA
MAYORAL AUKERAKETA 1999
D.O. JUMILLA

ZILARREZKO DOMINA
MAYORAL AUKERAKETA 2000
D.O. JUMILLA



VII. D.O. JUMILLA ARDO KALITATEAREN LEHIAKETA



ZILARREZKO DOMINA
MAYORAL ERRESERBA 1996
D.O. JUMILLA



- Ardo gaztea, urteko ardoa, ardo ondua eta crreserbako ardoa.
- Txakolina
- 1,i koreak
- Inportazioko garagardoak
- Kontserbak
- Sagardoa

Phezio ezio hotte412!